

## Hasieratik hasi

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-03-17: 2.

Gure arteko diferentziak, gutxiena esateko, batzutan pertsonalak dira, beste batzutan egiteko estilo edo tankerakoak, eta noizbehinka bakarrik funtsezkoak, arrazoin bide xuxenekoak. Badakit gure herriaz esaten ari naizen hau gizakia beraren oinarrizko auzia dela, baina baita herri bezala gurea ere!, hau da aitortzen ikasi behar dugun zerbait. On egiten digu gure akatzen aitormenak. Bada, une honetantxe ari gara gure artean gurdia idi parearen aurrean jartzen, eta hamabostero zutabetxo honen ardura dudanez aipatu nahi dut, ez gero inoren aurka, egia dela uste dudanaren denon alde baizik. Sarri aitortzen dugu geure kolkorako edo konfidantzako lagun baten, abertzaleon arteko batasunaren beharra, eta honen premiatasuna. Historiak baditu batzutan exigentzia larriak, eta honetako batetan bizi garela uste dugunak ere bagarela uste dut. Baina noiz eta nork hau publikoki aitortzeak garrantzi handia izan dezake, orain gertatu den bezala. Gure arteko batasun, edo hobe esan, gauzan elkarrekin egite honen baten beharra dagoela esan duenak zerbitzu handia egin dio herri honeri, Euskal Herriari. Noski, gero hitzetik ekintzara doan tarte betetzeko arrazoin bideak du garrantzi nagusia, eta hemen nire kezka: Lehen pauso magikoa Madrilen eman behar dugula esan duenak, ez du, nire ustez, asmatu, hau ondore bezala, ongi oso!, baina lehen pausoa hemen eta orain eman behar dugu, elkarrekin ibiltzen hasiaz, eta gero gerokoak. Ai, inbentu xume honekin asmatuko bagenu!